

LEITZULIA BTT 2023

- 350 parte-hartzailentzat daude dorsalak, 350etik 400era dorsalak ikusiko dituzuen arren jakin, babesle, laguntzaile eta antolakuntzako pertsonentzat direla.
- Hasierako **4 kilometro neutralizatuak/kontrolatuak, MENDIBIL BTT-EKO GURE KIDE BATZUK JOANGO DIRA AURRETIK ETA HAUEI EZIN ZAIE PASA, herritik eta trenbidetik mantso, KONTUZ TRENBIDEAN KONPONTZE LANETAN ARI DIRA;** eremu arriskutsua banaka igaro. Trenbidean 2 tunel; 2 tuneletik irtetean **TALDEKIDEAK** baztertuko dira eta bakoitzak bere martxa hartuko du;
- **ISTRIPUREN BAT GERTATUEZ GERO, DORSALAREN ATZEAN TELEFONO ZENBAKI BAT DUZUE:**

677 289 284

- **ORAIN MUGIKORREAN GORDETZEA KOMENI. TELEFONOA ZUREKIN ERAMAN** ezazu zeharkaldian zehar. Arazoren bat izanez gero, gertuen duzun **TXALEKO HORIDUN boluntarioarengana** jo eta hark lagunduko zaitu; **LARRIALDI EGOERAN** egonez gero soilik, zenbaki honetara deitu.
- Istripuren bat gertatzen bada eta medikuaren iritziz ospitalera joan behar izanez gero **ARGI UTZI NAHI DUGU IRUÑERAKO OSPITALERA ERAMANGO DELA PARTE-HARTZAILEA.**
- **ERRETIRATZEA** erabakiko bazenu, horretarako **lekurik egokienak BI HORNIDURA PUNTUAK** dira, haietatik bide zuzena baituzu errepidez Leitzako herriraino (erne autoekin, noski!) eta helmugara azaldu dorsala erakutsiz eta opari poltsa hartu. Edozein kasutan, **ezinbestekoa da erretiratzeko ANTOLAKUNTZA JAKINAREN GAINEAN JARTZEA momentuan bertan**, bestela gerta bailiteke mendian zure bila aritzea.
- **KASU EGIN** seinaleei eta antolakuntzari, **EREMU ARRISKUTSUETAN** abiadura moteltzea eskatuko baitizute, besteren artean. **Basoan galtzea** erraza den lekuetan ere (Guratz), arreta markaketari!
- Eta garrantzitsuena, **mendia eta kideak errespetatzeari** inolaz ere utzi gabe, **ZEHARKALDIAZ GOZATU!!!**

ARAUDIAREN GOGORARAZPENA:

- Antolatzaileak **AURRERA K.E.** eta **MENDIBIL BTT**, irabazi asmorik gabe eta **Leitzako UDALAK** lagunduta.
- 40 km eta **1300 +ko** malda, **zailtasuna ERDI/GOI** mailakoa.
- **Dorsal banaketa 7:30etik 8:45era** karrapean. **NAN** eskuan! Derrigorrezkoa da dorsala bizikletaren **eskulekuan ongi erantsita** eramatea: bridak.
- **Debekatua DORTSAL GABE** edo **BESTE** norbaiten izenpeko **dorsalarekin** ateratzea.

- Nahitaezkoak dira homologatutako **kaskoa**, arropa/**equipazio egokia**, **ordezko kamera/piezak** eta oinarrizko erremintak.
- **Irteera 9etan** eta helmuga **beranduez 3etan**, PLAZAN.
- **Aurretik motoa** doa bidea ziurtatuz; **atzetik erratz-bizikleta**, taldea itxiz.
- **Ez lehiakorra**: inguruaz gozatu, **burua altxa** eta nahi bada norbere burua probatu
- **Erne antolakuntzari (txaleko hori-dunak).**
- **Seinaleei kasu egin**: Markajerako zinta **ZURI GORRIA** eta **EHME banderinak**. Eremu arriskutsuetan gelditu! **Puntu zailetako bolondresei entzun!**
- **Auto eta bestelako ibilgailuekin** ere erne: errepidea 3tan gurutzatzen da!
- **Mendia errespetatu** (antolakuntzak lasterketatik botatzeko eskubidea!):
 - **Garbitasuna**: zaborrak norberak eraman eta zabor-ontzietara bota!
 - **Abereekin** zein **oinezkorik** topatzea ere posible!
- **Kontrol-guneek hornidura-puntuekin** bat egiten dute, eta honakoak dira:
 - 1. GUNEA: **BASA-KABI**, 17,5 KM. Pasatzeko ordu muga, **12:00**
 - 2. GUNEA: **UITZIKO GAINA**, 34,5 KM. Pasatzeko ordu muga, **13:30**
- Hornidura puntuen kokapena inork **jaki edo ur askorik eraman behar EZ** izateko pentsatua dago. Ura eta badaezpadako gel edo barritaren batekin aski duzue.
- OINARRIZKO zerbitzu teknikoa/**mekanikoa BASA-KABIKO** hornidura puntuan: doitzea/doikuntza/ezarpenak, olioztatzea, gurpil zulaketak soilik.
- Edozein lasterkari **kanporatua izan daiteke** antolatzaileen arabera:
 - Baldintza fisiko egokiak betetzen ez baditu
 - Kontrol-guneetan ezarritako ordutegia betetzen ez badu (tarte handia)
 - Dortsala, kaskoa edo gutxieneko ekipazio egokia ez badu
 - Jokabide desegokia badu, antolakuntza, besteak edo mendiarekiko
- **Helmugan dortsala erakutsi, kontrola eramateko**. Ondoren **opari-poltsa jaso**: mangitoaz gain, laguntzaileen hainbat produktu eta zortedunek bakarrik zozketako opariren bat aurkituko dute dagoeneko poltsan. Zozketako sarien zerrenda panelean ikusgai!
- Izen-eman duzuen guztiek **onartu eta izenpetu dituzue baldintza hauek dagoeneko**, beraz errespetatzea espero dugu.
- **Dutxak** kiroldegian.
- Bizikletak garbitzeko **mangerak** (suhiltzaile bolondresei esker) kiroldegian, parking ondoan, dagoen frontoi atarian.

IBILBIDEAREN DESKRIBAPENA:

- Hasierako 4 kilometro neutralizatuak/kontrolatuak, AURRETIK **MENDIBIL BTT-EKO GURE KIDE BATZUK JOANGO DIRA ETA HAUEI EZIN ZAIE PASA, herritik eta trenbidetik** mantso; eremu arriskutsua banaka igaro. Trenbidean 2 tunel; 2 tuneletik irtetean **TALDEKIDEAK** baztertuko dira eta bakoitzak bere martxa hartuko du;
- Plazaola utzita, zati gogorra: **indarrak neurtu!** %24eko portzentaiaraino, **rampa motz-zailak**. Leitzelarreko basoa, Urdolako belatsoak, Petriketa kaskoraino 1046m. **Lehen 14.5 km-tan 700m+ko** malda egina dugu, zailena!
- Hortik lehen hornidura-punturaino 4 km. Basa-kabin **beranduen, 12:00etan** pasa daiteke. Parte-hartzailereren bat, ordua baino beranduago irixten bada, proba utzi eta herrira jetsi beharko da.
- Idiazabal eta Kornietako parajeetan gora eta behera segi, Zuparrobin Beruetera doan pista azkarra hartu eta erdi bidean, txenda edo bidezidor bat hartuko dugu Uitziko gainera pagadi artean iristeko. Arreta jarri gurpil-arrastoei eta Uitziko-gainera jaisteko dugun azken jeitsieratxo harritsu eta irristakorrari!
- Bigarren hornidura puntua, **beranduen 13.30etan**. Parte-hartzailereren bat, ordua baino beranduago irixten bada, proba utzi eta herrira jetsi beharko da.
- Hemen 34 km burutuak ditugu eta pago artean 100+m-ko malda soilik aurretik Guratz mendiraino. Erne hemen seinaleei, **galtzea erraza da** eta.
- Guratz gailurrean, 35. Km, Aralar mendikatearen ikuspegi bikaina.
- Bertatik herriko plazaraino, 5 km-ko JAITSIERA BIKAINA basoan zehar. “Arrisku” seinaleekin ADI, zerbaitegatik jarriak daude eta.